EUZKEL -- ATALA

OLERMEN-IRAKITE

Aitzol'dar J'ri eskeñia.

Gaur da, Errenderi langille eder ontan, lenbiziko EUSKEL - OLERTI - JAIA. Egia, leendanik ere olerki-sariketaen bauk egin izan dira Euskal-Erria'n; baña "EUSKALTZALEAK" orain egotzi ai dioten ainbat mamiz ta kemenez.

Aien asmoz, gañera, urtero edo bizein, ta gero ta ospe larriagoz, berriztatu-bearra da OLERTI-JAI ori.

✤ ✤ ✤

Aspalditxodanik zegoan zokora-samarta gure olerkaria. Iñoizka oi-dituten gaigikerien zatarragatik, alegia, elertialdietan sarbidea uka egin zaie, ala itu. Ta ots ozenen bat ere entzun izan a, olertia, edo ark egokizko jantzia baitun neurtitza beintzat, ez-aintzakotzat emanaz. Zertzuk-nai esan, ordea, neurtitza edeik da, ta olermenak ezin asma dezake re emaitz yoria jaulkitzeko era atsegigorik. ¿Neurtitzez eztala, alegia, jende ta mintzaten?... Bañan, ¿izkera berdiña ere al-dute eguneroko gora-beera ak eta egiazko olerkariaren amets eta iskizun goitarrak?... Olerkari aizun oek neurtitza nardagarri biur omente... Ta olerkari banaka batzuk, berriz, mitzabiderik eztien. Zenbait atso ta gizen jardun txotxoloei begiratu-ezkero e mintzatze utsa ere iguingarri etsiarrak giñake. Izneurtuetan betegarri da "ripio" askotxo oi-dirala... Olerkari tzak oi dute ori ere. Ta ¿zer darraika rreri? Izneurgintza eginkizun gaitza dala, egiarria arkitzea errez ez izaki antzo Baña, ¿argiarria itsusi danik?... Azkenik, un-aalak entzunik gera oskidetza edo "rima" dalakoari buruzki. Jakiña, neurtiak eztu berezko, ez bearrezko oskidetan ori. Gabe ere egin izan dira ta badike egin neurtitz eder askoak; agian arragoak. Baña, berez bezela, esaldia erritu gaberik, olerkariaren antzetsuz orrenean, belarriak, egia esan, eztu gaizki artzen. Mintzatzea, gizakumeek arri gogapenak adiraztea, otsaren bidez enbearreko gauza danezkero, esanaren eskitasunari (musicalidad), otsaren ezizo-bearrari zor zaio berea; ta, ez izurgintza, ez-eta ere oskidegoa, eztira uts eta zokoragarri. Otsaren bidez ik, eskuzkoa-edo ba'gendu elkar-adirazpa (mingeak oi-antzo), jende xeea, agian, kazal zikin ta atzapar zakarrez aritze' al-litzake; baña olerkariek, eskierki, sutua luteke beren amesketak esku lanez, esku zuri legunez, azkazal garbi erriztadun eskuz itzuli-bearra. Begiari adun zor, alegia.

Baña, arloaz ertzeka diardut. Natorren ira.

✤ ✤ ✤

Olerkaria deritzan gizatxoro ori gaberik, ezta ezagun izan ez erri-pizkunderik, ez eta erri-elerti-betetasunik. Aberri-aldeko gogo-gudari-sailletan olerkari beti da aurñoñean. Ta beroni zor zaizka, gogo urkoien irriek gora-beera, gudate oietarik arenda ozenenak.

Batez ere, eleen apintze ta gaizkakundari buruz, olerkariari ez bezakio iñork ko oro-aal bezelako bat.

Ezagun (diran, ala izan diran) elerti atu askoek bitxirik oberentzakotzat olerkari gorenen bat darakuste: David, Homero, Virgili, Dante, Camoens, e. a. Ele-berbizkundeei buruz, berriz, Mistral'ek egi (ta gaurki) darakus gizon ale baten sku naroak zer dezaken, asabaen minna eriotzarengandik begiratzeko.

Batek baño geiagok esan izan du euskera gaizka litzakela orrelako olerkari bat iken eguñetik. Baña, oar bati gatxikion: olerkari guren oiek eztira bakar soillean arten, gure Aizkorri zelai lau-utsetik buartu ez-antzo; beti ditute olerkari xeeapak aitzindari ta laguntzat; beti, bil-alkan, muño ta mendixka sail bat. Txikion pro-berotzea gabe, ¿sortzerik bai al-lutete aundiak?

Ta gu, euskoak, ¿ete-gaude olerkari gurena eldu-giroan? Ezetz uste det. Baña bai, etorriko dala, txikien olermenari su eman-ezkero. ¿Nork daki jaioa eztegun? Nork, gure semetxoen artean ez al-dagon buruño maite bat, urteak zear ez-illorren dirditz-ustaiak bil-bearra?

Garau eze ori, bada, bear-garaiez goza ta ondu dedin, euskel-olermena irakin-araz dezagun, ta oler-zaletu-araz dezagun erria. ¿Olerkari onik eztegula?... Zirika dibazute diranak, eskein zaiezute aintzaopuruño bat... ta ¡gero mintza! Ta ori baiz egiñaz, ikusi baietz leengoak beren buruak jantziagotzen, ta berri liraňak sortzen; ta, azkenik, euskera gaixoak ikusi baietz kemen illezkorrez bazkako duan gogurena euskera gaixoari agertu baietz..

✤ ✤ ✤

Gogapen oietxek erabilli ditu buruan, bere ustez, "Aitzol" zuurrak, olerkariauzperrarazte au asmatzeko.

Eragille bizkorra aiz, adiskide on, ta ibagunearen sena dek argi: EUSKEL-OLERTI - JAIEN etorkizunean aitatu bearra zegok ire izena. Iri, bada, eskeñi ai dizkiat itz motz auek, "EUSKALTZALEAK"-en eraberrigin ta zuzpertzalle berdiñaka.

✤ ✤ ✤

Olermin aundi eder batek baigarabil euskozale oro: aberri berriaren olerki garra egin dezagun: idaz dezagun guziok neurtitz bana, bederik!

LIZARDI'TAR XABIER.

(Errenderi'ko Euskel-Olerti-Jaiari "Argia"-k eskeñitako ale bereziatik artua.)

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Igandean agurtau genduzan emen Eibar'ko Azkarate'tar Markeliñ euzkeltzale zintzua ta bere seme-alabak.

—Emen egun batzuzk igarota lengo astean yuan zan Bilbo'ra Barrenetxea'tar Ander. Baita Bilbora yuan zan Gorospe Urtsule andrea be.

—Gazteiz'era yuan zan azterketak egiten Ortuoste'tar Yon mutikua.

—Bilbo'tik etorri zan Areizga'tar Adolba.

GEIXUAK

Eleizakuak artuta geixorik aurkitzen da Beazko'ko Ikabaltzeta'tar Bedita gizona. Baita geixorik aurkitzen dira Kaparo'ko Ortuoste'tar Ixidor gizona ta Kata'ko Barbare andrea be. Danok arin eta ondo osatuko al-dira ba.

Urrengoerrota'ko Kose Kusto gizona bere geixuan aberantz andiya eginda lastter osatzeko ustian dago. Poztuten gara.

ZAURITU

Igaro dan asteartian Goiti'tar Pantzeska gizona Garamendi anaiyen arrobiyan (kanteran) lanian ebillela arri batek yota zauritu zan.

Bizkor osatu Patxiko.

ARRENTZAK

Urte guztiyetan lez astelen, astearte ta eguaztenian egin ziran arrentzat iru basotxono edo ermintetara. Lagun asko ibili da.

MALLUKIYAK

Asi dira garaun banaka batzuzk eldu-ten, eta egualdiya yasoten bada, laster aurrez be elduko dira. Garaun ederrak agiri dira, baña igasko beste ugari ez.

Aspaldiko urtietan, emengo andrak mallukiyak Durango'ko saltzella batzuri goizero-goizero erueten eutziezan, eta gero saltzella areek Bilbo'n eta Donostian saltzen ebezan. Baña aurten erri-onetatik malluki ta kerixak zuzen eruengo dira Bilbo, Gazteiz eta Donostia'ra.

Asmu orregaz Bereinkua'ta Mikel eleizañak (sakristauak) tarrant (auto) bat erosi dau.

KERIXAK

Erri-onetako igali ospatsuau dala-ta, mañaritarroi samar ezin geiyauan luzatu yakuz. Ba, beti zugatzari begira gagoz kerixa garaun asko ikusi gurean, baña alperrik. Aurten garauna mietz samar agiri dabe, ta buru-nekatze asko barik zenbatu be egiten dira. Igaro dan urteko aldian gitxi dagoala-ta, negarra ugeri da; baña tira garaunok laster gorrituten asiten diranian, orri bitartietatik uste dan baño geiyau agertuko dira. Bitartian epia artu daigun.

MAÑARIKO.

AZKOITI

IGANDIAN

Errenderin Euzkel Olerki Jaian biltzen zeraten, abertzale Euzkeltzale guztieri, opa dizutet egun eder bat igarotzia anaitasun sutsuaz, eta gure oituren onuragarri izatia.

IGOKUNDEZ

Jaunartzia egin zuten amar urte betiak dituzten mutil eta neskatilla txikiak, egun pozgarria izan oidana-da, garai ortan aiñ apainduta ikustia nor bera tamalez egualdi txarra.

ANAI IKASTOLATAKO KISTARRAK

Ogetabost urteko urteburua dala, gure urira etorri zirala, eta beragatik jai aundiak ditugu, larunbatian eta igandian beren omenez; nere iritziz irabazia dute orrelako egun poz garri bat anai kistar zintzoak.

IRAGARKIA

Gure gotzain agurgarri Mujika'tar Mateo etorrera larunbatian arratsaldeko 7'tan, erria bilduko da aurrez bera artzeko, Pantzeska Donearen elizatzo aurrean, orrela erresbatzakin batera abestuaz txadon nagusira biltzen dala artzaiña artaldiaz, bertan abestuko da "Agurra" Azpiazu'tar Toribi'rena lau abosetara.

Igande goizian zazpiretan jaupa txadon nagusian gotzain agurgarriak, bertara bilduko da Udala buruan endoriakin amairan gure jauna emango dio gotzaiñak mai deunara urreratzen diranei, amarretan jaupa nagusia gotzaiña bertan dala txanburu jaunak abestuaz iru abosetara eta erriak L. Réfice-ena ,amaitzian ibildeunaz gure jaun ikurtuna emango da ikastola berrietako elizatzora otoiak egiñ ondoren, izango dira itz aldiak gotzaiñak ere bai, ordu batian oturantza bertako aretuan erriko burusai eta abar mai buru gotzaiña dala, arratsaldian eleizako jaiak amaitzian bestelako jolas asko izango da; ikusten degunez orrillaren azkena eta garagar-illan lenbizikoan egun ederrak izan ditugu orretarako gogor jardun digu aztertzen aste onetan abesbatzak buru Arrieta'tar Benigno jaupari gaztea dutela, abestuko ditu "Guazen Erromerira" sei abosetara Aita Otaño'rena "Kalez-kale" bost abosetara eta txistuaz Solozabal'ena eta "Agurra" amairan.

EGI-ALDE.

EUSKALZALEAK

Aitor'en izkuntz maitagarriya
au ospatsua len leudik.
uste genduen lotsaz bezela
bazijuala gugandik,
Izurri txar bat sendatzen zalla
sortu zitzayon barrendik,
baño ez du nai semeak ama
galtzera utzi iñundik,
"Euskaltzaleak" ala nai du ta
sendatuko da oraindik.

Amak ain gogoz entzungo duen
seme maitearen abotsa,
nun gozamenez aseko zayon
len samin daukan biotza,
alkar baturik eska zayogun
Jaungoikoari laguntza,
zor zayon eran goratu dedin
gure Aitor'en izkuntza,
gaur Errenderik auxe nai du ta
atozte danok onuntza.

Iñoiz aztu ta bizi izan gera
oso gurea degunez,
bai kutsatu ere zerbait arrotzen
oitura zatar lizunez.
eragozpenak nunaitik eta
laguntzik iya iñon ez,
gaurtik lanari ekin zayogun
zor zayon maitetasunez,
beraren aintza ospatzen dala
Aito'en ele kutunez.

"Euskalzaleak" ian ontarako
aukeratu du tokiya,
ontzat artzagun zalantzik gabe
beraren erabakiya,
zenbait jaun prestu eta leyalen
kabi txit maitagarrija,
nun gaur oraindik mintzatu oi dau
Aitor'en ele garbiya,
goramen asko merezi duen
Errenderi'ko uriya.

P. AGIRRE.

Leron 26-5-30.

Talleres del Tívoli
Travesía del Tívoli. Pabellones. Bilbao
REPARACION DE AUTOS Y CAMIONES
Precios económicos

OTZANDIYO

YUAN-ETORRI

Bilbo'tik Ostendi'tar Karmele ta Zesare, Ibarra-laburu'tar Amali, Langarika'tar Erremiki ta Landa'tar Andere. Bilbora, Uriarte'tar Paule umiakaz.

UGUTZAK

Bizinai'tar Ixidor ta Bengoa'tar Emile'ren semia. Baita ugutzau eben Ajuria'tar Ander ta Pujana'tar Yone'ren seme bat. Zorionak.

ORRI BALTZA

Igaro dau bariku zortzi il eta larunbatian lurraldu eben Oyanguren'tar Yon eta yente asko batu zan bere illotoizketara. Aren sendiyari laguntzen dautsoegu atsekabian. Goyan bego.

GAIXORIK

Ikurton deunak artuta aurkituten da Urrejola'tar Eukeni. Otoi bat irakurliei bere osasunagaitik.

ALKAR-IZETA

—Arratsalde on, Txorromillo.

—Alan ekarri, Bekoleta.

—¿Ze barri dok?

—Igandian erriko erdel-zaliatzazko barriketa aldiyak puzlak atara dabezala.

—¿Guzurra dok ala?

—Ez baña, egiyak garratzak idiralako min eiten yuek eta... ¡or yaok ba!

—Onetariko bat artiak artu ezinda yeguan toki baten eta bere sendiko batek esaten yeutson: —Tómate pasiensia y no hagas caso a ese mostrenco de Bekoleta ni Txorromillo. ¡Vaya unos personajes de aristocrasia! ¡Semejantes podencos!

—¿Zer deritxok?

—Onek eguzkiya nora... dabiltzen "marrajuek" dirala ta eztogula gauza onik eingo.

—Baña onen antzeko abertzale batzuk be baiyagozak Otzandiyon.

—Zer diñok mutil?

—¿Zer? Nik egiya.

—¿Abertzale erdel-zaliak dagozala esan gura dok?

—Bai, orixe.

—¿Zergaitik ba?

—¿Edozeiñegaz erdera parra-parra eiten daben abertzalia zer dok?

—¿Abadiak euskeraz errezau ta erderaz erantzun daben abertzalia zer dok?

—¿Euren seme-alabai euskel-ixen bat ipinten ezteutsen abertzalia zer dok?

—Onek baño abertzale zintzuagorik ezpa'legok ¡¡porrot!!

—Onek etxauke abertzalien ezaugarri txiki bi baño: bata EUZKADI irakurten dabela; ta bestia auteskundietan edozeñegaz burrukan eiteko gertu dagozala; besterik izpirrik bez.

—Oneri abertzalien ordez beste izen bategaz deitu biar yakek. Yauntxuek (caciques).

—¿Baderitxok?

—Bai, ederto yagok.

—Zoriyonez eztozak asko.

—¿Asko? ¡iru edo lau sendi bat beintzat!

—¡Amaika kaiku baiyagok ludi onetan!

—¡Ori esan!

—Ingalandar'en aurka yagi dau Gandi abertzale zintzuak onek baño yarraitzale obiagorik ezpa'leuko, espetxian usteldu biar.

—Ori ziur.

—Agur, Bekoleta.

—Urrengo arte, Txorromillo.

BEKOLETA.

AZPEITI'TIK

IGOKUNDE EGUNA

Egualdi txarra euritsua azaldu zan goizeko 8'tan amar urte betetako nexka mutillak zuten Jaun artze aundiya 9 ta erditan etorri ziran Loloya'ra Bultziya'n Donostiko neskaitz jostunak 600 enbat baziran. Tamalgarriya izan zan alako egualdi txarra egitea; arratsaldian zezen enparantzan ba zuten zezenketa egiteko asmua bañan etzuten egiñ utzirik beste egun baterako.

LAISTERKETAK

Badirudi gure erri onetan jendia sasoyan arkitzen dala; lengo egun batian jokatu zuten egun sentiyan bi gizon ezkonduk zarrak irebazi zuan; beste egun batean berriz illunabarrian jokatu zuten Prantzesak irebazi zuan. ¡Ai Xanti, Xanti, belaun-buru oyek aguarras pixka batekin igurtzi biar dira!

UROLA

Gure Euskal-erriyan, badira ibai garbi eta abertsak: eta oyetako bat uste degu, dala "Urola" Aizgorriren kolkuan jayo, eta Zumaya'ko itsasuan oyeratzen dana; bere zati baten zaitzalle daukagu Bereziartua'tar Joseba Mirena; gizon jatorra; urteero zaletasun aundi batekin amorrai kumiak azten ditu; aurten ere jakin degunez, 12 milla amorraikume azi emenditu; gero "Urola" eta beste erreka batzuetan botatzeko, beiñ baño geyagotan, bere zuzentasunatik agintariyagandik saritua izan da. Zorionak bada Joxe Mari.

ARAUNTZ MENDI.

✤ ✤ ✤

LASTERKETA APUSTUA

Igaro dan igandean iragarrita zegoan bezela jokatu zuten zezen-enparantzan lasterketa apustu bat Ordiziko Olazkarreta'tar Segundo "Aya'ko Txikiak" lagun zuela ta Errezil'ko Mendizabal'tar Leandro "Shashi"-k Aizama'ko "Txikia laguntzalle zuela.

Lenbizikoa irten zan bertan garaille igarorik zezen enparantzari 100 biraldi ematen (11.300 neurkin edo metro) 42 minutu ta 23 segundo, Galtzalleak 43 minutu t'erdi igaro zituen.

Apustuak galtzallean alde zeuden 20, 6'ri ta baita batzuek 4'ri ere. Oste asko bildu zan.

PARTIDU IKUSGARRI BAT

Izan zan igarotako igandean bazkal-ondoan jokatu zutena txanponeko pelotakin Jokalariak ziran alde batetik Carton I ta Beldarrain'tar Erruperta ta bestetik Arozena'tar Errikarta ta Etxeberria'tar Koldobika Partiduak iraun zuen garaian 11 tantotan berdindu ziran ta 15'na berdindu ondoren aurreratu zan lenbiziko bikotea 19'raño jarririk 19 ta 15. Beste iru tanto egin zituzten galtzalleak 18 geraturik 20'ra.

EZKONTZA

Ill onen 28'ean ezkondu ziran Aranzazu'n Etxaniz'tar Jesusa ta Otaño'tar Andon..

Bikote berriari betiko eztizko ilargia igarotzea opa diot.

JUN-ETORRIAK

Orduñatik etorrita emen agurtu degu gure lagun ta ikasle gaztea Etxaniz'tar Ander bere arrebaren ezkontza ikustea etorrita.

Madril'etik etorri dira Elias'tar Joseba Mirena ta Etxezarreta'tar Joseba Andoni bere emaztteakin.

NASKALDIA

Jesukristoren Igokunde egunean koldobikatarrak Estibaliz'ko Andre Miren'i bidezkunde bat egin zioten.

Egun berean txadon nagusian izan zuten Jaunartze ospatzua erri onetako neska-mutillak 100 bat urreraturik Mai Donera.

Datorren igandean nola Ama Miragilliaren eunkida ospatzen duten erri onetan ibilkunde ikusgarri bat egitekoak dira Ama orrek ainbeste maitari diranak uri onetan. Ibilkundea arratsaldeko elizkizunak bukatutakoan izango da. Txadon nagusitik irten, Augustin donearen dik igaro ta Erruki-txeko txadontxura ta bertan lagako dute Ama Miragillearen irudi ederra.

ERRENTERIRA

Zaletasun bizia dago datorren igandean erri orretan "Euskaltzaleak" batzokiak eratzen ditun jaiak ikustera juateko.

OSATU

Da egonaldi luxe xamar bat egin ondoren Orbegozo'tar Alexandre gizon ona. Pozten gera ta kontuz ibilli berriz erori gabe. Ala opa dizut.

ITURRI-TXIKI.

LEGAZPI'TIK

BELBILLAK ZAPALDU TA ZAURITUTA

Igaziko astarte illunabarrean ola-langilliak Telleriarte'ra eramanda zetorrela "Andreseneko" onduan Garmendia'tar Joseba gure errikidiaren semetxu belbillagaz jo ta buru-narruba jazota utzi leban, amengo Mendia'tar Pantzeska belbildunak.

Beriala jazua izan zan mutikotxua amengo sendagilliaren etxera lendabiziko sendagintza egiteko.

Gaur entzun degunez, jozi diote narruboi eta txarragorik ez ei-dau. Ogetaka "puntuak" eman emen-dizkijote.

Ameak, kontuz ibilli zeben seme-alabatxuegaz, gero negar egitia alperrikua da bestela.

GEURE ARTIAN GIPUZKUA,
GEURE ARTIAN GIPUZKUA,
BAÑA AMENDIK AT EUZKADI

Siñestu ezinda artu zan uri onetan Bilbaotarren Zaragoza'ko garaipena. Ezta gutxiagotarako.

Geure arteko ez-bai ta autubetan Legazpi'ko uriau giputza danezkero Gipuzkuaren gurenda nai ixaten du beti, baña amendik atera juan ezkero eztau besterik ikusten Euzkadi baño.

Jarrai dezagun onetara: beti geuria aupatzen, eta ez geuriak ankaperatzen eta iñonak zutitzen, ba beste iñor zutintzia auzi onetan ezta besterik, geuk geure buruba itxusi ta satartutzia baño.

Itzokaz eztegu iraindu nai katalunyatarrik, ezta gutxijagorik ere, baña gure anayoik bai-dakite norberetasuna zela dan ondo asko.

Orain jo ta keya, Bilbaotarrak, gurendatsu etara zaitezten Euzkadi goratubaz, eta "txapela" biar dan lekura ekarteko. ¡¡Aupa ta abill!!

ZAR-ZALE.

ZEANURI

JAUNA'REN ZERURA IGOKUNDEA

Elezkizun andiak egin ziran Azentzio egunian. Goxian Jaun-artzeak da Miren Alabak elezkizuna. Amarreta meza abestu Itzaldi andikiro egin eban parroko jaunak

Arratsaldean bezperak danak abestuta Da ondoren Andra Maria'ri loren eskintzea oso ederto. Oneik yaiok dotoltasun andiagaz egiteko aurreko egunetan ondo gertauta ondi edo altarak loraz da apainkoz ondo apainduta agertu ziran.

ESTIBALITZ'ERA

Eguraldi oso txarra euki aren be lagun asko igaro zan emendik. Bilbo'tik da beste erri askotakoak bebilleta. Baita emengoak be yoan ziran bezen-bezegiko belbilean. "Oro" Araba'ra yoan etorrie egin ebenak badira emen atzo Gorbei zear yoanda. Oneik urrezko domiñea bearleukie.



NASKALDIJA

Maixu-ikasle Sagarna ta Arana etorri dira Iruña da Burgos'tik. Gazteiz'tik Zuluaga andereñoa.

Gaur, larunbatan, dira etorteko Gazteiz'tik abade-ikasleak 13 erri onetakoak.

"Jaungoiko-Zale" da "Argia" artu doguz. Oso apain da ederto datoz.

EGURALDIA

Udabarrian ete gagoz ba
ala ete gagoz neguan?
Aro gozatsu udarakorik,
ez dogu ondiño soloan.

Goizaro argi, euzki bero
poztu egiten dabena,
txori-alayak abestiakaz
auxe aldirik onena.

Txirritxirruak mutu dagoz ba
muna zulo bazterrian
mutikotxoak, txolet da kayola
gertaurik auron leyoan.
Ziri ta ziri urduri dabil,
mutilla aren zuluan,
abeslariak barruti diño
ondiño ezkagoz aroan.
Poztu zaiteze oraingoan ba
erdu yaku Bagilla
Mayetza otzak il-ba eban be
ni enaz ain otzakilla.

BASERRITAR BAT.

ERRENDERITARRAI NERE BIOTZ OPARIZ

Jaitu nairik olerkaria
ogea utzi
musua garbitu
irten da enparantzara
aren izena
aren aintza
toki berezi artan jasotzera.

Ortzi sapaitik euzkia
bere printz
dirdiratsuak
olerki eganari dagio
edergarri
goratu nairik
egun aundi ta ospatsua.

Olerkariak saritan abestu oi du
bere naiez
bere maitagarriz
iñoiz omena jaso gabe,
urretxindorrak
aritz baten
adarretik egin lezaken ain zoli.

Ederra zoragarria aren omenaldia
berezia
ospatuena
Errenderin gaur egingo zaiena
anaitasunez
maitasunez
oroigarria euskaldun guztiontzat.

¡Gora olertia, gora "Euskaltzaleak"!...
ardura aundiko
gure bazkuna
Gora Errenderitarrak, olerkarien
seaskako
semeak
Gora zuek euskaldun benetakoak.

ZAPIRAIN'DAR ANASTAXIO.

GAZTELU ELEXABEITIA (ARTEAGA)

ERIOTZA

Astelen goizian Portugaleteko itxas ontzi Ingeles baten lanian ibili ta iausi zan ontzi aretako bodegara, erri onetako semea izan dan Ibarra'tar Julen; bereala Basurttoko gaixo etxera eruanda ordu batzuk barru il zan Jaungoikuaren besuetan Ikurton Deunak artu ondoren.

Eguastenian gorpua erriratu eben lagundurik bilbel batzuetan aren langille lagun eta langintza aretako ugazabak.

Ondoren il eleizkizunetan ikeragarrizko gentetza izan zan.

Laguntzen dautsagu atsekabean aren alargun eta enparau sendiari eta irakurle guztiari eskatzen dautsagu Agur Miren bana gure laguna izan dan Ibarra'tar Julen'en arimiagaitik (G. B.)

IRU GARA TA EKIN GOGOR

Iru? Bai, iru. "Upoko zera", "Neu" eta azkenengo agertu dau "Elexabeitiko". Iru Euskel-idazle Artea onetatik, eta azkenengoa ezta makalena. ¿Nor dau? Neuk susmua ortzen dot, baña gaurkuagaitik ixillik eukiten noia, eta urrengo baten azalduko da nor dan. Oin egin biar doguna da guztiok ekin gogor eta sarri geure lanari Euskerara biurtu arte Arratia guztia.

BULKANOTARRA.

LEXONA

EGURALDIAK

Gaur eguraldi oso txarra eiten dausku euri asko botauta eta baserritarrak zer gomutau ez dakiela aurkitzen dira lana asko daukezala eiteko eta.

JOAN ETORRIAK

Igaro dan astean juan zan Logroño'ra geure auzotegiko neskatil liraña dan Basañez eta Gana'tar Miren, zein juan zan bertan garagarrillararten igaroteko bere osaba Basañez'tar Koldobika eta lengusiñak Josebe, Miren, Agurtzane eta Andonegaz batera.

Ondo ibili eta gogotan euki gozokiak onantza ekarteko.

Emen egotalditxu bat einda gero Juan da Bilbora geure adiskide eta abertzalea dan Basañez'tar Balendin, zeinek ezan dauskun garagarrillarantza biurtuko dala Lexonara.

Osasunagaz ondo ibili eta etorri zaitezala opa dautsut.

BESTEA.

EUZKEL - IKASLIAK

Ikastaro-amatutia ospatzen Bizkai-Aldundi Euskel-Ikastolako ikasliak, aurreratu egozan lez, orrilla 29'gnian, Arantzatzu'ra juan gintzazan, geure irakasliagaz, Gandariasbeitia'tar Joseba jauna eta Altuna'tar Joseba jaunagaz.

Goxetik eurija ixan zan, Bilbao-inguruko mendijak lañoz estalduta ziran. Baña ori, zer da gaztientzako? Au ikusi arren, adore onagaz tarrantan sartu giñan. Ogetamar batu giñan, irakasliak eta ikasliak

Ikasle artian gengozan amalau mutil baita amalau neskatill. Neskatillak ziran: Ganboa, Torrontegi, Arrillaga aizteak, Arana, Sopelana, Solozabal, Luko aizteak Ezpeleta aizteak, Aretxabaleta eta Ponte-Biar andera.

Oñati'n ikusi geban Universidadea eta asko atsegin yakun. Nik eneban pensatzen orrelako gauzarik Euzkadi'k eukiko gebala. Oñati'k "aire señorial" andija dauko

Emendik, Oñati'tik, igo gintzazan Arantzatzu'ra, baña lañua ezeuskun laga ango "vistak" ikusten Arantzatzu'ra eldu giñanian zaparrada aundi bat yausi zan len-len Miren Neskutsa'ri yisitatxo bat egin geban, eta gero gorputza berotuteko bazkaldu.

Ezta biarrezkua esan zelako adore geukan.

Sakela ondo ipiñi gebanian eta akeita eldu zanian, bigarren ikasle batek, ikaslien ordez, irakaslioi eskerrak emon eutsoen, eurok egin daben eusko-ikastolan lanagaitik euskerea zabalduten. Gandariasbeitia jaunak izketaldi bat egin eban, euskerea zabaltzeko ekin da ekin biar gebala, eta au egin legike guramen aundijagaz. Neskatillentzako, batez bere, itz eder batzuk esan eutsoen, gomutau eutsoen zelan gaurko neskatillak bijarko amatxubak dirala, eta amak euskerea jakiten badau eta euskezaletasun pixka bat eukiten ba-dau, umetxubak, bere, euskeldunak ixango dirala. Izketaldija amaituta abestuten asi geban geure aberriren abestijak, eta azkenian euskotar ereserki bategaz amaitu geban.

Miren Neskutsa'ri agur eginda juan giñan tramankuluan sartu giñan Bergararuntz. Erri onetan ikusi geban gauz-eder asko, batez bere, Montañes'en Josu-Kistua.

Durango'n concierto txiki bat emon euskun Solozabal neskatillak, pianoz.

Gabeko zortziterdijetan Arriaga-Enparantzan eldu giñan poz-pozez, ainbat euri artu arren.

Orain ba, euskel-ikasliak ez aztu Gandariasbeitia jaunak esan euskuna, baña batez bere neskatillak, zubek Aberriren itxaropena zarie ta.

Agur, irakasliak eta ikaskidiak.

MIROTZ.

ARRASATE (MONDRAGON)

ORDU DEUNA

Igokunde egunian emengo eleixa guztietan egin zan ordu deuna, oste andixa egonik, batez ere eleiz nagusian.

ZILLAR ESTEIXAK

Bedoña auzoko Unzueta'tar Kepak, igandian ospatu zuan bere ezkontzako 25'garren urte urruna, Yaungoikuak 13 seme alaba emon dotsoz eta 12 bizi ditu. Zorionak eta urrezko ezteixak ere sendi guztiakin batian ospatzeko izan zaitela.

"LUISTARRAK" ESTIBALITZ'EN

Tarranta aundi bitan 90 gazte inguru juan ziran emetik, ta guztiak poz pozik etorri gaztedi ederra batu zalata eguraldiak asko ezeutsen lagundu.

ESKERRIK ASKO

"Euskaltzale" batek bialduta artu ditut berso berriak, aspaldi luze eretxita ninguen zure ixiltasunari, ta "moro lealak" erdixan artu ete zaituen bildurrez.

AGUR GUZTIOI

Gaur Errenderi'n batuko zeraten euskaltzale guzti, guztioi. Arrasate'ko euskaltzaliak biotz agur bero bat damotsue.

GEIXORIK

Eleixakuak artuta dagoz Etxebarria'tar Petra ta Zeziaga'tar Ane. Aguro sendatzia opa dotzuet bixoi.

DEUN YON JAIAK

Urtero letz aurten ere Udala'ren laguntasunakin eusko usaindun jai gutxi euko degu Arrasate'n, Kepa egon, Yon egon, danok anaiak.

UDALA-MENDI.

ELGOIBAR'TIK

GAXORIK

Gaxorik arkitzen da Cruz'tar Rafael.

Baita ere gaxorik arkitzen da Ansola'tar Manuela Laza eta Jenaro sastriaren ama.

Opa diogu laister sendatzia.

NASKALDIA

Gazteiz'tik etorri da gure lagun maite Ubiria'tar Sebastian emengo beterinariuaren semia.

Baita ere Gazteiz'tik, Garate'tar Sabina.

Barzelona'ra juan da ostiko-jokua ikustera Alberdi'tar Justino.

Ondo etorria.

LUISTARRAK

Uri onetatik izan dira Estibaliz'en Laistar aldra bat, tamalez egualdi oso txarra izan dute baña ondo omen ibilli odira.

TXISTULARIAK

Etxeberria'tar Patxiko eta lagunak gogor ai dira garagarrillaren 9'an Donostira juateko. Ia mutillak, txapeldun ateratzen zeraten.

IZPARRINGI BERRIA

"El Día", erri onetan azaldu dira argekai edo anunzioak pozak gaude ikusteko.

ATXOLIN.

MUXIKA

EZKONTZA

Erri onetako ertxadonan igaro dan illaren ogeta amaikan ezkondu dira Landajo'tar Kepa eta Sendagorta'tar Sebere neska mutillak, gure ezagun eta lagun begi begikoa da Landajo'tar Kepa oso mutil leijala eta alaija. Tamala artzen dogu geure artetik iñes egitiaz; baña beste aldeti poz pozik gagoz beronen ezkontza zorijonekuagaz; artu egik ba gure zorijon agurrik sutsuena.

Ia ba, Kepa, auxe dok ire kurtzia, askorentzat eruan-gatxa bada be, zuretzat biar bada erreza izango da, kurutze orren ningostasun eta laztasun guztijak, zuretzako leyal eta gozuak izan leitekez; nik olan opa deuataz, Kepa.

EIXTARI.

MENDATA

JUAN-ETORRIJAK

Emen izan ziran lengo igandian Muxika'tik etorrita Ortuzar'tar Julen, Undabarrena'tar Jon eta Ibargurengoitia'tar KKaitan, baita emen izan da "Bidebijetatik" etorrita Landa'tar Joseba.

ETXE BARRIJARI

Telie ezarri dautse emengo etxe barrijari, lengoz ganera berton dabizen langiliak Enbeita'tar Balendin, Arejita'tar Augustin Muxikati, eta bertoko erriko Arrola baseko mutila. Tamalez ez dakit beren izena ,eta "arotzije" lanian Gernika'ko Matias arotza beren ikasliekin.

AJENGIZTARRARI

Jaunaren zerura igokunde egunian emen izan nintzen bertoko jaijak dire ta tamal andiz erri onetatik "Euskel-atalera" izparrik bialduten iñor ez dot susmetan bada au tamalgarrija dala uste dot Euskalerriko, erri batetik EUZKADI izparringiko "Euskel-Atal"-era izparrik bialdu ez egitie.

Jaunaren Igokunde eguneko barri zeozertxu emoten asi naiz, goizian, amar da erdietan jaupa nagosia emon eban bertoko txanburu, Pertika'tar Erroman jaunak, jaupa abestu eben Gernika'ko abeslarijek bertoko txaneuskiñlari Sepeliñek txaneuskiña jorik, eta itzaldi edar bat egiñ eban aita Errapel Aba karmeldarrak euskeraz garbi eta argi.

Au ikusirik iñor ez ote da idazten asiko. Eup... da onegaz itxartu zaiteze mutillak.

GAZTELU.